



VERTER RECYCLING INPLIKATUTA DAGO JADA ERRESKATE- ETA EGONKORTZE-LANETAN, KOORDINAZIO-MAHAI TEKNIKOAN PARTE HARTZEN ARI BAITA, EUSKO JAURLARITZAREN INGURUMEN SAILAREKIN ADOSTU ZUEN LEGEZ

Zaldibar, 2020ko martxoaren 16a.- Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Lakuan, otsailaren 12an egin zuten bileran, enpresak eta Ingurumen Sailak adostu zuten, lanen garrantzia eta urgentzia dela eta, Jaurlaritzaren arduratzea erreskate-lanez eta lurrak egonkortzeko lanez.

Helburu horrekin sortu zuen Jaurlaritzaren jarraipena eta koordinazioa egiteko mahai teknikoa, orduz geroztik Joaquín eta Alberto bilatzeko eta lurrak egonkortzeko lanak gidatzen ari dena. Era berean, aurrera darraite zabortegeko hondakinen zati bat hartuko dituzten biltegiak prestatzeko lanek.

Enpresa hasi-hasieratik ari da laguntzen lan horietan guztietan. Horretarako, antzeko egoeratan eskarmentu handia duten bi teknikari espezializatu batu ziren koordinazio-mahaira, enpresaren ordezkari gisa.

Enpresa une oro agertu da aipatu jarduketak egiteko elkarlanerako prest, eta berdin jarraituko du, teknikariak kontratatu eta eskura dituen baliabideak eskainiz.

Verter Recycling-en online jakinarazpenak: www.verter.eus

Informazioa: Arturo Zubiaga

Tel.: 94 415 86 42